

JARDUERA



Helburuak zehaztea

10

HELBURUAK

- **Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren helburuak zehaztea.**

prozedura

Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuak zehaztu egin behar ditu Hezkuntza Proiektuak hizkuntzen inguruan biltzen dituen printzipioak eta helburuak. Beraz, Hezkuntza Proiektua da erreferentzia nagusia eta lehendabizikoa.

Helburu zehatz gisa adieraziko dira diagnostiko fasean antzeman diren lehentasunezko jarduerasparruak eta horiek, gerora, Plan Estrategiko baten bitartez garatuko dira.

Hizkuntza Proiektuaren batzordeari dagokio Plan Estrategikoaren helburuak zehaztea. Xede zehatz horiek erabakita, ohiko bideak baliatuko ditu klaustrokideei helarazteko, haiek berrikusi, aztertu, eztabidatu eta onetsi ditzaten.

Irakasleen iritziak jasota, helburuak onetsi egingo dira ikastetxeak dituen egitura eskudunen bidez. Azkenik, hezkuntza-komunitateari jakinaraziko zaizkio.

emaitza | ekoizpena

denbora | denboralizazioa

Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren helburuen zerrenda.

Bi aste helburuak idazteko eta irakasle-taldeak ikusteko, aztertze eta onartzeko.

tresnak

ereduak | adibideak

10.1. tresna. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren helburuak idazteko zehaztu beharreko alderdiak |94. or.

10.1. adibidea. Ikastetxearen hizkuntza-helburuak. Zer nahi dugu? | 129-130. or.